



## Kontu kontari

### Fanderixaraiño barri billa

Periodikorik, radixorik, eta telebisiñorik be ez eguen denporan —eta zer esanik ez Internetik eta whatsappik— notiziak agorik ago zabalketan ziran, eta mandazaiñak eta karreteruak ziran, beste batzuen artian, barri horreik zabalketan zittuaiñak herri batetik bestera.

Halaxe, Zubillagako errotako Mateok ohitturia eukan egunero-egunero eguerdi aurtxuan errotatik Fanderixaraiño fateko oiñez, ordu horretan San Prudentzio aldetik etorten zan karreteruaren zain egoteko. Ha aillegaiten zanian, aldamenian jarri eta bixok bata bestiaren onduan kontu kontari etorten ei ziran berriro errotaraiño. Hala enteraitten zan ondoko herrixetan eta urriñagokuetan pasaitten ziran albistiakin: ferixako kontuakin hasi eta azkeneko heriotzera arte, tartian baiña, leku bateko edo besteko asmuak, nunbaitzuetan pasautako ezbiharrak, eta iñun izandako kontu danak ondo mentauaz.

Agorik agokua eta zuzen-zuzenekua izaten zan orduko Internet.



## Ezetz asmau

### Lotu auzo bakoitza bere jaixarekin eta jaixori ospaketan dan hillabetiarekin (II)

- |                   |                   |                   |
|-------------------|-------------------|-------------------|
| 1. Murgixa        | a. Sanandresak    | 1. Bagillian      |
| 2. Olabarrieta    | b. Madalenak      | 2. Mariatzian     |
| 3. Santxolopetegi | c. Andramarixak   | 3. Bagillian      |
| 4. Torreauzo      | d. Asentziuak     | 4. Agustuan       |
| 5. Uribarri       | e. San Josiak (1) | 5. Garagarrillian |
| 6. Urrusula       | f. Santikutzak    | 6. Zemendixan     |
| 7. Zañartu        | g. Sanpedruak     | 7. Mariatzian     |
| 8. Zubillaga      | h. Sanpedruak     | 8. Agorrian       |

(1) Olabarrietan martixaren 19tik mariatzaren 1era pasau ziran jaixok 1950 inguruan, garizumarekin batera ez tokaitiarren. Hori baiño lehenago, 'Patroziñuak' zelebraiten ziran, Pazko egunetik hiru astera.

Noiz egongo gara? Sanandresetan, Madalenetan, Andramarixetan, Asentzioetan, Sanjosetan, Santikutzetan, Sanpedruetan.

## Sinonimuak

### Billatu aditz honein sinonimuak

- |                         |                           |
|-------------------------|---------------------------|
| 1. Íxo                  | A. Izendatu               |
| 2. Esana egin, obedeziu | B. Eho                    |
| 3. Gogor egin           | C. Nabaritu, sumatu       |
| 4. Barri emun, abisau   | D. Eskaini                |
| 5. Izentau              | E. Joan                   |
| 6. Somau, igarri        | F. Obeditu                |
| 7. Eskiñi               | G. Jakinarazi, ohartarazi |
| 8. Tolestau             | H. Eutsi                  |
| 9. Fan                  | I. Irristatu              |
| 10. Labandu             | J. Tolestatu, eran jarri  |

Billatu aditz honein sinonimuak: 1B, 2F, 3H, 4G, 5A, 6C, 7D, 8J, 9E, 10I



(\*) Itten: arrastua, pistia

>> Kontu kontari

## Berrogeita hamaseiko hotzaldixa

Orain dala hirurogeita hiru urte, 1956ko otsaillian hain justu be, hotzaldixak eta edurtiak Europa osua harrapau euen. Euskal Herrira otsaillaren 1ian sartu zan frantzi-iparra edo norte baltza izenekua eta hillabetiaren azken egunera arte iraun eben. Donostian hemeretzi izotz egun izan ziran hillabete osuan eta egun askotan termometruak ez eben zero gradutik igo. Pittinka-pittinka edurra pillaketan fan zan bazterretan eta arazo haundixak eragin zittuan han eta hemen: Urbanan esaterako, bi metroko altueria hartu eben.

Gizurra badirudi be, aurreko abenduan eta ilbaltzian udako girua egin eben. Arbolak puja barrixa bota eta sagarrak loria etara euen. Ilbaltz akaberan, baiña, eguraldixa txarketan hasi eta, otsaillaren bixan, Kandelaria egunian, izotz baltza egin eben. Eta handik aurrera, otsail osuan, hotz izugarrixa: zenbait lekutan, hemezortzi gradu zero azpittik. Ezbiharrak be izan ziran, gizon bat hotzak hil zan Iturriotz aldian (Aia). Teillatu askotan, berrogei egunian ez eben edurra kendu. Transporte guztia geldittuta, ganaduarendako jatekorik ez, ardirak-eta gosiak hiltten: bee! bee! Estuasun galantak danian! Negu ha, haxe bai gogorra, fan zan gizaldiko hotzena, bai, seguru!

Hona hemen *Basarri* bertsolarixak izoztia pasau ondoren jarritako bertsua

*Gabon jaietara iritsi ginen  
uda kutsu eder baten  
elastiko bat jartzeko ere  
etzun gogorik ematen  
aurten negurik ezkenduela  
hor ari ziren esaten  
ondo pentsatzen jarri ezker  
a ze deskuido zeukaten!*



Horrelako izozterik etzan XVIII. mendetik hona ezaguketan. "Aspaldi izan ei zan beste negute izugarri bat. Gure arbasuak kontaiten euen ijituak amandria jan euen urtia izan zala ha". Hona hemen haren gaiñeko bertso hau:

*Milla zortzirehunian  
izan zan ordia  
hemen egin zuena  
negua fuertia  
horma beltzak egiñaz  
luzaro nortia  
gero berrogei  
eguneko elurtia  
ijituak amona  
jan zuen urtia*



Izozte haundi hori Oñatira be aillegau zan, jakiña, eta ha ezagututakuak kontau doskueiñez, 1956ko otsaillian hillabete osuan edurra egin eben, aldiko gutxi, hotzak ez otsalako izten, eta gabetan egundoko izotza. Ilbaltza berotan pasau zan, baiña otsaillaren batian aldaketia etorri zan, frantzi-iparra joten hasi zan eta hillabete osuan iraun eben holaxe. Hil horretan egin eben tenperaturarik bajuena 17° C zero azpittik izan zan, eta Legazpin 20° C zero azpira be aillegau ziran. Martixa etorri zanian, hegoia jotzen hasi zan, eta, haren graziaz, izotzak poliki-poliki urtuaz fan ziran.

Urte hartan, antzigarrak hemengo piñu insignis guztiak erre zittuanian, Bixaingo Joxek berrogei idi-biaje egin zittuan Aloña azpiko Auntzerreka inguruko basuetatik Zakariasen (Aia) baserri onduan) zerraraifño. Egundian bi biaje egitten zittuan, bat goizian eta bestia arratsaldian. Garai hartan, bi idi pare be izan zittuan etxian. Olabarta auzuan baziran, izan, ididunak, asko gaiñera, baiña berari emun otsain lan hori. Berak dixuenez, orduan igartu ziran piñu harein orde zartu ziran barrixak, honezkero botateko moduan egongo dira. Laizeruak (pinus nigra edo laricio), arleziak (alerziak: Laris decidua, alerce europarra edo lárice) ) eta maritimuak (pinus pinaster), oster, etziran igartu, leku hotzetatik ekarritakuak dira eta.

Eskerrik asko, Bixain Urrutiko Joxe Inza eta Antoneneko Pako Idigoras barriemaillai.



(\*) Itten: arrastua, pistia

>> Jakingarria

## San Jose Patroziñuak: Olabarrietako lehengo jai nagusixak



Zutik dagozen mutillak ezkerretik eskumara: Aldaiko Jesus Altzelai, Errementeriko Juan Aizpeurrutia, Mangaiko Joxe Urzelai, Muñoko Fermin Zubia eta Errementeriko Jenaro Aizpeurrutia. Burdi barruan Zelabarreneko Enrike Zubia eta *Andoain* soinujolia. Fotografia 1950ekua da.

Lehenago, martixaren 19xan, San Jose egunian, goizian goiz, oraindiok illunetan, auzoko maiorazkuak eta herriko ermandadekuak, kapa baltzak soiñian eta kandela senduak eskuetan, faten ziran meza nagusira Olabarrietako ermittara. Eta, ondoren, Jurgi baserrira mokadutxua egittera.

Pazko Bigarreneko arratsaldian, berriz, herri guztirako lehenengo erromeria egitten zan, eta kaletarrak gustura baiño gusturago faten ziran urtero Olabarrietara Murgiko Elorrixako soiñujoliaren doiñuekin dantza egittera. Jaixori auzoko kinttuak eta solteruak organizaitten euen: diru-batzeia, oholza-ifinttia, soiñujolia ekartia...

Aurretik egin biharreko lan guztiak, beraz, gaztien esku egoten ziran. Diru-batzeia aittatu dogunez, jakin egizue etzala edozein modutan egitten: auzoko kinttuak bakarrik parte hartzen euen, auzoko solteruen etxietara fanda eta diru-eskia egiñaz.

San Jose Patroziñuak Pazko Domekatik hiru astera ospaketan ziran, hau da, hiru domeka geruago, eta horreitxek izaten ziran orduko jaixak, auzoko nagusixak esan degigun, Pazko Bigarrenekuaren aldian inportantiak.

1955ian, Pio XII.a Aita Santuaren baimenagaz, martixaren 19ko jaixa eta San Jose Patroziñuak mariatzaren lehenengora pasau ziran, San Jose eguna betik garizumiarekin batera tokaitiak oztopo edo eragozpen ugari sortzen zittuelako eta horreik danak ebitaittia gura zalako.

Hala eta guztiz be, esan bihar da gaur egunian San Jose eguneko jaixak edadeko jentiaren artian inddarra eztauela guztiz galdu eta oraindiok mezia eta ondorengo mokadutxua be egoten dala faten direnendako.

*Eskerrik asko Muñoko Fermin, Tirueneko Bernabe eta Etxaingo Maritxu barriemailliai!*





(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> Kontu kontari

# Arbelargo Domingorena

Ederra pasau xakon behin gure \*Domingo Haundiri!  
Baziran egun batzuk tripako miñez ebillena eta, ohian  
ondoezik eguela, jaiki zan bikarbonatua hartzeko  
asmuagaz. Jaiki be, illunetan jaiki zan, koittadua; izan  
be, Arbelargo etxaboletan sasue hartan etzan argi  
askorik izaten, kurseloren<sup>1</sup> bat edo beste gehixenera,  
eta illuntasun hartan bikarbonato-potia hartu biharrian,  
mataratasena hartu eben, haren hautsa urakin nahastu  
eta eran eben. Ño! Bizirik urten ebenian gizarajuak! Oso  
flakauta ibilli zan, ziharo jota, baiña bizirik urten eben  
Jainkuari eskerrak!

Oharra: Domingo Etxezarreta Muñoa -Emiliano eta Jesus  
artzaiñen aitta, eta sasue bateko fondako Martiñen eta  
Txoko txabolako Joanitoren anaia- 1983an hil zan.

1 *Kurselo= kuseku=kriseilu.*



Arbelargo etxabolak (Urbixa)

## >> Euskeraz egogi

### \*Txakur kaka

Txakurren eginkaarixak jasoten eztirala eta, jente asko agertu da hasarre eta kejaz arrazue guztiarekin, eta hori izentaitteko 'txakur kaka' berbia ebali da takian-potian. Hori esateko, baiña, gure artian '**korotza**' ebali izan da orain arte. Normalian edozein abereren eginkaarixa aittaketako ebalten dan terminua da, baiña baita gizakumiarenari esateko be. Badira zenbait ejemplo berba honen ebaleria ilustraitteko:

#### Errefrauak:

*Aberatsentzat arroza, eta pobrientzat korotza*  
*Saixak jan dost bildotsa, ordeko itzi dost korotza*

#### Animalixa bakoitzarenak bere izena dako:

*Astakorotza, bekorotza (bekotza, behixena), zaldi-korotza, ardi-korotza (arkorotza), ahuntz-korotza, erle-korotza.* Oillo, oillar eta hegazti guztien eginkaarixak, ostera, aixkomenta 'ziriña' izenez ezaguketan dira.

Eta *gorotzilla*, gure zemendixa edo azaroa izentaitteko be ebali izan da.

## >> Asmau

Ondorengo aditzok zein izakirekin ebaliko zeuke?

- |                  |  |
|------------------|--|
| 1. Hil           | A. Pertsonak, ganaduak, ipiztixak                              |
| 2. Akabau, akabo | B. Pertsonak   |
| 3. Deballau      | C. Pertsonak   |
| 4. Itto          | D. Ganaduak, ipiztixak; pertsonen kasuan, gutxiesteko zentzuan |
| 5. Garbittu      | E. Pertsonak   |
| 6. Urkatu        | F. Subaak  |



(\* Itten: arrastua, pistia

## >> Jakingarria

### Baserri izenak (1)

Kontu jakiña da etxiak egundoko inportantzia euki dauela euskaldunondako; hainbesterañokua, eze etxiari emundako izena norberak hartzen eben, eta, halaxe, etxeko izena norberaren abizen edo goittizen be bihurtu izan da askotan. Horren ejemplo dittugu herriko baserri honeik danak: *Aiastui, Agerre, Altzibar, Anduaga, Arrazola, Arregi, Arrola, Azkarraga, Azkarreta, Azpilleta, Balantzategi, Baltzategi, Barrenetxe, Biain (Bixain), Billar, Elortondo, Enparantza, Errementarikua, Garaikua, Goixenetxe, Gorordo, Idigoras (Iruatz), Jauregi, Kortabarri, Lazarraga, Lizarralde, Maiztegi, Mendikua, Mugartza, Murgialdai, Murguzur, Olalde, Otadui, Otalora, Ugarte, Umerez, Urbieta, Uriarte (Uxarte), Urzelai, Zelaakoa eta Zumalde*, beste batzuen artian. Orainguan, muestrarako sei baserri aukeratu dittugu, abizenak izatiaz gain, horreittako batzuk oiñetxiak be badiranak:



*Aiastui*  
(Olabarrieta)



*Olalde*  
(Goribar)



*Lazarraga haundi*  
(Torreauso)



*Lizarralde*  
(Berezaio)



*Ugarte*  
(Olabarrieta)



*Umerez*  
(Murgixa)

## >> Ezetz asmau

Lotu auzo honeittako bizilagunen izenak euren gaitzizenakin:

- |                                     |                                |
|-------------------------------------|--------------------------------|
| 1. Urrusulakuak                     | A. Buztin sakatzailliak        |
| 2. Araozguak                        | B. Goitxetarrak                |
| 3. Berezaukuak                      | C. Errondarixak                |
| 4. Aurrekomendikuak                 | D. Babazorruak edo haizpeekuak |
| 5. Olabartakuak                     | E. Buztanikarak                |
| 6. Zubillagakuak                    | F. Jakintsuak edo ilustrauak   |
| 7. Lezesarrikuak                    | G. Lur santukuak               |
| 8. Arantzazukuak                    | H. Laixarixak                  |
| 9. Aratzurtikuak (Araozgo auzaunia) | I. Matxiñuak                   |
| 10. Larrañakuak                     | J. Jitto herrikuak             |

Erantzunak: 1d, 2i, 3h, 4c, 5g, 6f, 7a, 8b, 9j, 10e





(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> Jakingarria

### Baserri izenak (2)

Herrixan badittugu beste baserri batzuk, oster, euren izena ogibide edo lanbide batetik datozeiñak, hau da, adierazten doskueiñak etxe horretan noizbaiten bizi izan zala lanbide hori ekuan norbait. Ogibidiak etxiari emun xao izena. Sail honetakoak dittugu, beste batzuen artian, *Argiñena*, *Arotzena*, *Banastagingua*, *Barberokua*, *Errementarikua*, *Kamiñeruena*, *Kapagingua*, *Maixokua*, *Porteruena*, *Soldadukua*, *Txipitzaillekua*, *Unaingua*, *Upagingua*, *Urtzaillekua*...

Upelak egitten zittuana upagiña zan, eta bera bizi zan etxiari *Upagingua* izena jarri xakon. Unaiak ('ganaduzain' edo 'behizain' berba ezagunaguak gure artian) behixak zainketan zittuan eta haren etxia *Unaingua* zan. Artillia garbittu eta kardaatu ondoren mantarrak, hau da, polaiñak-eta egitten zittuana kapagiña, eta bera bizi zan etxiari, *Kapagingua*. Banastak egitten zittuana banastagiña, eta bizilekua, *Banastagingua*. Burdiña urtzeen ebena urtzaillia eta haren bizilekua, *Urtzaillekua* eta, azkenik, burdiñola txiki bateko nagusixa txipitzaillia zan eta haren bizilekua, *Txipitzaillekua*.



*Banastagingua*  
(Uribarri)



*Kapagingua*  
(Berezaio)



*Txipitzaillekua*  
(Zubillaga)



*Unaingua*  
(Garibai)



*Upagingua*  
(Zañartu)



*Urtzaillekua*  
(Zubillaga)

## >> Ezetz asmau

**Lotu ezkerreko zutabeko izenak euren adiñarekin edo egoeriarekin:**

(Kontuan izan jarritako adin tartiak erreferentziazkuak dirala, eta sailkapen horrek gutxi-asko orain arteko gizarterako balixo izan dauela)

- |                                 |  |
|---------------------------------|--|
| 1. Aittajauna / amandria        | a. 18 hillabete arte                     |
| 2. Mutil edo neska hazitxua     | b. Illobak dittuena                      |
| 3. Aguria / atsua               | c. 12 urte arte                          |
| 4. Mutilla / neska              | d. Ezkonbageko edadekua                  |
| 5. Mutikotia / neskatiillakotia | e. Behin ezkonduak                       |
| 6. Titiko edo mantetako umia    | f. Edadeko pertsonia                     |
| 7. Gizona / andria              | g. 3 edo 4 urte arte                     |
| 8. Mutikua / neskatiillia       | h. 18 urtetik aurrera ezkondu bittartian |
| 9. Mutilzaharra / neskazaharra  | i. 13 eta 18 urte artekuak               |
| 10. Umia                        | j. 10 urte arte                          |

Erantzunak: 1b, 2j, 3f, 4h, 5i, 6a, 7e, 8c, 9d, 10g



(\*) Itten: arrastua, pista

## >> Jakingarria

### Baserri izenak (3)

Herrixan badittugu beste baserri batzuk pertsona-izenetik datozenak zeïñen edo noren kasuan deklinatuta. Sail hau izango da ugarixenetakua, ugarixena ezpada. Danak aittaketia eziñezkua danez, hona hemen zirrindaratxo bat horren erakusgarri: *Antonena, Antuena, Asentzionena, Benturena, Bernalena, Fernanduenena, Gasparrena, Gontzaluena txikiña, Isabelena, Joxiuenena, Jurgiña, Juanpuena, Lopena, Meltxiorrena (Olajaungoa), Migelen haundixa eta txikiña, Millianena, Popelabena, Simonena, Tomasena, ...* Eta sail honetako beste batzuk, berriz, izen hipokoristikuak dira (modu kariñosuan etxeak edo lagunak izentaitteko ebaltzen diranak): *Txantonena, Txomena, Txopena, Txurdiñena ...*



*Benturena* (Garagaltza)



*Joxiuenena* (Larraña)



*Simonena* (Olabarrieta)



*Tomasena* (Zañartu)



*Txomena* (Araotz-Uriarte)



*Txurdiñena* (Araotz-Jausoro)

## >> Euskeraz egogi

Kontuz erderaz hain ugarixa dan **-ada** akaberiarekin, sarrittan euskeraz zela itzuli eztozu-eta jakitten. Adibidietan fijau ezkeru, berba adiaña modu dagozela konturatuko zara.

<i>Primada</i>	<i>Prima-primuen bazkarixa Iñuzentekerixia</i>
<i>Quintada</i>	<i>Kintto-bazkarixa edo kintto-afarixa / Kintto- eguna</i>
<i>Alubiada, castañada, sardinada, chocolatada Piperrada</i>	<i>Baba-jana, gaztaiña-jana, sardiña-jana, txokolate-jana Piperradia: arrautzak tomate, piper eta pipermiñakin nahastuta</i>
<i>Salvajada, burrada, gamberrada Judiada, putada Chorrada</i>	<i>Astakerixia, kirtenkerixia, ganberrokerixia Gaiztakerixia, putakerixia Lelokerixia, huskerixia, tontakerixia, alukerixia</i>
<i>Cacerolada</i>	<i>Lapiko-jotia / kazueta-jotia / eltze-jotia</i>
<i>Sentada</i>	<i>Jarrialdixa, jarrialdixa, egonaldixa; Jarrialdixa (protestakua danian)</i>
<i>Pintada</i>	<i>Pinttadia</i>
<i>Manada Bandada</i>	<i>Lapur-bandia, gaizkille-bandia; majadero-kuadrillia (Eskallu)-bandadia, (txori)-saldua, (gazte)-aldria, (neska-mutiko)-kuadrillia</i>
<i>Escapada</i>	<i>Fan-etorri bat; urteeratxua Txiripia</i>
<i>Machada</i>	<i>Balentria, egitaundixa, azaña</i>





(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> Jakingarria

### Baserri izenak (4)

Herrixan badogu beste zenbait etxe eta baserri, euren izena sortzeko -etxa edo -etxe berbia hartu daueiñak konposiziñuan. Batzuetan aurretik agerketan da -etxe izena, eta beste batzuetan, berriz, atzetik. Lehenengo -etxe osagaixa aurretik dakoñiak aittatuko dittugu: *Ettxatxo, Etxeandi, Etxebarri, Etxebarrialde, Etxenagusi, Etxetxikia, Etxezuri...* Eta segidan -etxe bigarren osagai moduan dakoñiak, esaterako: dolare + etxe= **Dolaetxe**; goiko + etxe= **Goikoetxe** / goien + etxe= **Goixenetxe**; barren + etxe= **Barrenetxe**; gipuz + etxe= **Kipuetxe**; eskola+ etxe= **Eskolaetxe**; pater+ etxe= **Pater-etxe** / **Farretxe**; harri + etxe = **Arretxe**; bake+ etxe= **Baketxe**...



*Dolaetxe* (Garibai)



*Goixenetxe* (Lezesarri)



*Barrenetxe* (Urrusula)



*Kipuetxe* (Berezao)



*Eskolaetxe* (Olabarrieta)



*Farretxe* (Zubillaga)

## >> Euskeraz egogi

Oñatin oso normala da i bokalez akabotako berbiari **-a** mugatzaillia erantsittakuan *ixa* txistukarixa sartzeia, *i+X+a>ixa*, era horretara geure berbetiaren ezaugarri nagusixena izan leikiena sortuaz, baiña Oñatiko kutsua emun guran, edo, orain arte zela ebalu izan dan ez jakittiaren ondorioxoz, beste forma batzuk be entzuten hasi dira azkenaldi honetan, tradiziñuaren erabat kontrakuak diranak, esaterako: *\*gorrixian, \*zurixian, \*erdixian, \*barrixian... \*karnazerixian, \*peskaderixian, \*pelukerixian, \*fruterixian ... urrixaren \*12xian edo \*22xian; \*2007xian, \*2008xian... \*bidixuan; \*neurrixian ...*

Holako kasuetan nahikua da hauxe esatia:

*Auto gorrixian, etxe zurixian, plaza erdixian, parke barrixian, egoera larrixian ikusi neben... Ixixaan dago.*

*Karnazerixian, peskaderixian, pelukerixian, fruterixian... topo egin neben berarekin.*

*Hillaren 12xan, 22xan; 2007xan, 2008xan, 2019xan ... pasau zan.*

*Bideuan agirixan geratu da.*

*Egin lana neurrixian, ibilli gura ezpadozue larregixan.*

Hortaz, NUN kasua singularrian:

*I+AN= -IxAN egingo dogu: mendixan, zelaixan, artexan, harrixan, gerrixan, garaixan, maraixan, sapaixan...*

Baiña:

*TZ+AN= -iAN egingo dogu: auto baltzian, Aloñako haitzian, Akaizgo harkaitzian, atzeko ardatzian, gatzian probau, berakatzian pasau egin haiz...*





(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> JAKINGARRIXA

# Baserri izenak (eta 5)

Normala dan moduan, bi hizkuntza alkarren onduan dagoenian, bata bestetik berbak hartzeko joeria egoten da, eta gehixenetan hizkuntza nagusitik txikiñera pasaiten dira berba horreik, mailleguan hartuta, esan ohi danez. Bada, herrixan badittugu baserri batzuk euren izenak erdarazko berbetatik datozenak, baiña hain ondo geureganatu dittugunez, antzik be etxatenak emuten mailleguan hartutakuak diranik. Multzo honetakuak dira: *Tuertokua* (\*Soraluze erdikua), *Pardioskua* (\*Izurrategi erdikua), *Konkena* (\*Basaizpe), *Tiruena* (\*Antuena), *Largokua*, *Ditxosuena* (\*Ezkibelgoa), *Barberokua*, *Jardingua*...

(\*) izen historikua



*Konkena* (Uribarri)



*Pardioskua* (Santxolopeztegi)



*Tiruena* (Olabarrieta)



*Largokua* (Zañartu)



*Ditxosuena* (Zañartu)



*Ipentza eta Jardingua* (Zañartu)  
Erretratua, Jose Urzelai

## >> EUSKERAZ EGOGI: Txokolateixian ala txokolateixan saltzen daue?

- Plazako **fruterixia** ona da; BAIÑA Naparreneko kantueko **fruterixan** erosi dittut naranjak.
- **Peskaderixia** jentez beteta dago; BAIÑA BMko **peskaderixan** be peska ona topauko dozu.
- **Pelukerixia** zabaldu daue Kale Barrixan; BAIÑA Kale Zaharreko **pelukerixan** izan gara goizian
- Orain **karnizerixia** dagueen lekuan lehen txokolaterixia eguen; BAIÑA zinerako sarrerak **txokolaterixan** saltzen dittue.

Antzeko formulaziñuak komunikabidietan-eta sarritan ebalten diranez, argi ibilli biharra dago akats hori ez egitteko. Hona hemen prentsatik jasotako zenbait adibide:

### OKER:

- Goiena: *Sarrerak dagoeneko salgai daude Txokolateixian bost eurotan.*
- Noticias de Gipuzkoa: *Sarrerak Aloña Mendi, Izarraitz eta Arrano tabernetan eta Txokolateixian salgai daude (20 euro)*
- Diario Vasco: *Ekitaldirako sarrerak atzo jarri ziren salgai Txantxiku Ikastolako idazkaritzan eta Txokolateixian 8 eurotan*
- Udalaren web orrixa: *Sarrerak salgai Txokolateixian eta ganbara.sacatuentrada.es*
- Txantxiku ikastola: *2. mailakoak Txokolateixian. Ekintzailetzako ikasleak joan zen eguaztenean Txokolateixian izan ginen*

### ZUZEN:

- Udalaren web orrixa: *Bazkide Kontzertua Ganbara Abesbatzaren eskutik. Sarrerak salgai Txokolateixan (8€)*



(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> JAKINGARRIXA

### Etxe izenak (1)

Baserriko izen batzuekin pasau dan moduan, kaleko zenbait etxeri be lanbidiak emun doste izena. Hona hemen horreittako ofizio batzuk, baten batzuk aittaketiarren: *ehule, enterradore, errementari, harrijoilla, kapagin, kirru, konfittero, perratzaille, sillero, santu, txaiñ(a), txapa, zirrinkagin/txirrinkagin, uztargin,...* Orainguan, lanbide batek etxiari izena emundako kale-etxe batzuk agertuko dittugu, jakiñaren gaiñian izten doskueiñak sasue batian ogibide hori eukan famelixia edo lagunen bat etxe horretan bizi zala:



*Harrijoillarena*  
(Aita Madina kalia)



*Perratzaillarena*  
(Aita Madina kalia)



*Zirrinkagiñena / Txirrinkagiñena*  
(Patrua kalia)



*Konfitteruena*  
(Patrua kale eta Kale Barrixa arteko kantalian)

## >> Sinonimuak

Billatu lanbidiak adierazten dauein berba honein sinonimuak

- |                  |                                |
|------------------|--------------------------------|
| 1. Txokolaterua  | A. Uztargilea                  |
| 2. Errementarixa | B. Pilotagilea                 |
| 3. Uztarrigiña   | C. Eiherazaina                 |
| 4. Errotarixa    | D. Txikitzailea                |
| 5. Ontzigiña     | E. Urtzailea                   |
| 6. Perratzaillia | F. Eltzegilea                  |
| 7. Pelotagillia  | G. Txokolatagilea              |
| 8. Txipitzaillia | H. Errementaria, Arotza (Naf.) |
| 9. Urtzaillia    | I. Hazama                      |
| 10. Iñudia       | J. Ferratzailea                |